




LAN TALDEAREN BILERA	
DATA: 2024.04.08	BILERA ZENBAKIA: 4
ORDUA ETA LEKUA: 17:30tan Itsasondoko Udalean	
PARTEHARTZAILEAK: Bihotza (gizarte langilea), Elena (Udal zinegotzia), Amparo, Jone Etxeberria, Esti eta Erkuden.	

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

<p>LANDUTAKO GAI ORDENA</p> <p>ARAMARI ESKERTZA GUTUNA Larrialdietarako etxea behar adina denbora uzteako eskertza gutuna eta opari bana egitea adostu da Aramako 5 zinegotzi eta alkateari.</p> <p>JUBILATUAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Maiatzak 10ean Gasteizera egingo duten txangorako laguntza eskatu dute. Bihotzak lagundu die antolakuntzan eta paneletan ere informazioa jarriko da.• Batez ere administrazio lanetan eskatu dute laguntza.• Errelebo falta ere somatzen dute. Orain batzordean daudenen adina handia da eta gaztegoen erreleboa nahi dute.• Maiatzaren 16ean bilduko dira berriz beraiekin eta beraien beharrak zerrendatuko dituzte, nola eta zertan lagundu zehazteko.<ul style="list-style-type: none">○ Bitartean Legorretakoekin hitz egingo dugu beraiek errelebo aldaketa nola egin duten informazioa edukitzeko.○ Ate irekiak egitea proposatu da, herriko jendeak jubilatuen martxa eta egoitza ezagutu dezaten.○ Jubilatu gazteekin ere bilduko dira. Urtean zehar pixkanaka bildu eta informazioa jasotzen joateko geratu gara. <p>HELDUAK ZABALTZEN Eusko Jaurlaritzak donostian emango duen formakuntzan parte hartzeko aukera dugu. Ongizateko inork ezingo du parte hartu baina Bihotzak informazioa eskatuko du.</p> <p>EMAGIN Lanez lepo dabilta baina Irailean kulturartekotasuna lantzeko saio batzu egin ditzaketela esan digute, gainera asko interesatzen zaie. 1 saio prestaketa lanetarako aurreikusten dute eta beste 2 saio herritarrekin.</p>



ERROLDAK

Martxoan erroldatuak 8 izan dira, 7 heldu eta haur jaio berri bat. Guztira 4 gizonezko eta 4 emakumezko. Horietatik 5 errolda bakarrak izan dira, honek etxebizitzetako logelak alokatzen direnaren zantzua ematen digularik.

Hitzegin da etorri berri hauei ez zaiela ongi-etorririk egin, informalki bada ere. Gutxienez whatsapez kontaktatzea adostu dugu eta horretarako idatzi bat prestatuko da, eta Jose Luisi telefonoa eskatzeko eskatuko zaio. Horrela egingo dugu lehen kontaktua beraiekin.

ETXEKO- LANAK / ARDURAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Legorretakoekin hitz egin (Itxasoren bidez)	Apirilean zehar	Bihotza
Helduak Zabaltzen formakuntzako informazioa eskatu	Maiatzak 14	Bihotza
Jubilatu gazteekin bilera	Maiatzean zehar	Ampara, Jone I. eta Bihotza
Ongietorriarako telefonoak eskatzeko esan Jose Luisi	Apirilean	Erkuden
Apirileko erroldak	Maiatza	Bihotza

HURRENGO BILERA

ONGIZATE (maiatzak 6 - 17:30 udaletxean)

- Harrera Eguna

JUBILATUAK (maiatzak 16)

- Bizi Nahi elkartean